



UDALERRI  
EUSKALDUNEN  
MANKOMUNITATEA

Egin  
nirekin ere  
euskaraz!

## ZERGATIK KANPAINA?

**Gure herriak asko aldatu dira eta ari dira aldatzen, eta bizilagun berriak ditugu.**

**Etorri berriei harrera adeitsua egitea dagokigu, eta baita nora etorri diren azaltzea ere. Euskal Herrian euskaraz bizi garela erakustea, eta herrian euskara dela bertako hizkuntza adieraztea.**

**Asko eta asko Euskal Herrian bertan jaioak dira. Eta gure herrietako eskoletan ikasten dutenez, euskaldunak dira. Baina, askotan udalerrri euskaldunetan ere ez diegu euskaraz hitz egiten.**

## GAKO NAGUSIAK:

- Herriko haur zein gazte guztiei lehen hitza beti euskaraz egin nahi diegu, aurreiritziak albo batera utzita.
- Haurrak dira helduoi euskaraz hitz egiteko eskatzen digutenak. Zuek zarete eredu.
- Seme-alabei euskaraz hitz egin nahi diegu, eta baita beraien gelakide edota lagun direnei ere.
- Jatorri atzerritarra dutenen seme-alabak euskal herritarrak eta euskaldunak dira.
- Euskaraz hitz eginda, euskara ikasten lagunduko diegu.
- Gurasoek bakarrik ez, merkatari, ostalari, administrazioko langile, gidari, osasun langile... guztiek egin behar diete euskaraz.
- Eta hurrei bakarrik ez, helduei ere gogoan izan behar dugu beti lehen hitza euskaraz egin behar diegula.